

A stylized illustration in shades of blue and red depicting a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing headsets or holding devices. The background is a dark blue gradient. Two thick, wavy lines, one red and one blue, cross the lower half of the image.

Eragin politikorako eredu dokumentua

Documento marco para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Garapenerako lankidetzako tresnak

(2018ko martxoaren 10ean burututako Batzar Orokorrean onartutako dokumentua)



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Dokumentuaren erreferentzia-esparrua

Euskadiko GGKEen Koordinakundea osatzen dugunon abiapuntua pobrezia eta desberdintasunak deuseztatzeko giza eskubideen esparruan oinarritutako lankidetzaredua da, eta Giza Garapen Iraunkorra (GGI) dugu beste gizarte-eragile batzuekin eraiki nahi dugun gizarte alternatiboaren helburua eta oinarria.

Funtsezkoa iruditzen zaigu onartzea pobrezia eta desberdintasunek ondorioak ez ezik, arrazoiak ere badituztela, eta badirela zenbait politika, eragile eta praktika haiek eragiten eta mantentzen dituztenak.

Gainera, Ipar-Hego ikuspegitik global-tokiko ikuspegira igarotzeko beharra ikusten dugu. Horrela, barne-koherentzia eta koherentzia publikoa ahaztu gabe, GGKEak euskal lankidetzaren deszentralizatuaren protagonista nagusiak izaten jarraitzea nahi dugu, bai eta gizarte-eraldaketa prozesuetan ari diren beste eragile batzuekiko koordinazioan eta harremanetan aurrera egiteko aukerak irekitzea ere.

Alde horretatik, uste dugu gure garapen-ereduarekin bat datozen gizarte-mugimenduekin dugun aliantza lankidetzaredu eraldatzailea lortzeko eta garapen-eredu hegemonikoak kritikatzeko eman daitezkeen erantzunetako bat dela.

Lankidetzaren hori gauzatu ahal izateko behar diren baldintzak

Sinesten dugunarekin bat datorren lankidetzaredua (aurreko atalean azaldu da) gauzatzeko, beharrezkoak iruditzen zaizkigu honako premisa hauek:

- Finantzaketa-egonkortasuna, Barne Produktu Gordinaren %0,7 betetzera bideratua. Helburu hori lortzen den bitartean, gure aldarrikapena da lankidetzareduak erakunde laguntzaileen guztizko aurrekontu bateratuaren %0,7 izatea, eta, Foru Aldundiak badira, norberaren kudeaketarako guztizko aurrekontu bateratuaren %0,7. Lankidetzaren eraldatzailea, epe luzekoa, egonkorra, iraunkorra eta eraginkorra egiteko, iruditzen zaigu beharrezkoa dela eskura ditugun aurrekontuak ere lankidetzaren mota hori gauzatzeko modukoak izatea.
- Konfiantzan eta lankidetzaren oinarritutako erakunde publikoen eta bestelako erakundeen arteko harreman-esparrua.
- Erakunde publikoek eta bestelakoek urrats esanguratsuak egin behar dituzte, egiten ditugun ekintzen azterketa erreala eta adostua egiteko eta, horrela, ekimenean eragina eta ikusgarritasuna hobetzeko.

- Zama burokratikoak murriztea. Uste dugu egin daitekeela eta onuragarria izango litzatekeela, bai erakunde publikoentzat, bai gainerako erakundeentzat. Horretarako, neurri hauek aplikatzea proposatzen dugu:
 - Prozedura administratiboen ebazpena epe laburretan egiteko asmoa txertatzea lankidetzak-politika publikoetan.
 - Esku-hartzearen konplexutasunera eta munta ekonomikora moldatutako administrazio- eta prozedura-irizpideen harmonizazioa.
 - Euskal erakunde publiko guztiek eragilean (Iparraldekoak nahiz Hegoaldekoak) erregistro bateratua izatea, dokumentazio administratiboa behin eta berriz aurkeztu behar ez izateko.
 - Prozedura batzuk (dokumentazioaren sinadura elektronikoa eta dokumentuak online konpultsatzea, esaterako) jatorrizko lekuan egiteak ematen dituen aukerak aztertzea, dokumentuekin gora eta behera eta materialak konpultsatzen ibili behar ez izateko.
 - Eskatzen dugu ordainketa-prozedura bat diseinatzea, eta prozedura horrek ezaugarri hauek izatea: batetik, ez dezala eragin, normalean, beharrezkoa ez den likidezia-tentsiorik proiektuak gauzatzeko unean eta lekuan; bestetik, ez dadila egon, ahal den neurrian, lankidetzak-funtsak galtzeko arriskurik, funts horiek aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egiaz aplikatuta ez egoteagatik. Horretarako, konponbide hauek iradokitzen ditugu, besteak beste: hurrengo ordainketa eskatzeko justifikatu beharreko ehuneko nabarmen jaitea; erdiko edo jarraipeneko txostenen zama administratiboa murriztea; eta espedienteak izapidetzeko gehieneko denborak ezartzea.
 - Idazketa-sistema edo sistema informatikoa hobetzea, txosten metagarriak sinplifikatzeko.
 - Proiektu guztien gastuen euskarria nahiz faktura guztiak aurkeztean eta goitik behera aztertzean oinarritzen den fiskalizazio-sistema batetik finantzatutako ekimenen eraginaren lagin hautatu bat aztertzen duen sistema batera igarotzea, edo jatorrizko lekuan egindako gastuen kontu-ikuskaritzara.
 - Proiektua gauzatzeko epean, 6 hilabeteko luzapenaren komunikazio arrazoitua egiteko aukera ematea, berriazko baimenik behar izan gabe.

Lehentasun geografikoak, zeharkakoak eta arloen arabekoak

Kontuan izanik gure abiapuntuaren erreferentzia-esparru zabala giza garapen iraunkorraren aldeko apustua dela eta, horrekin batera, ikuspegi global-tokikorantz

igarotzekoa (azken ikuspegi horretan, hain zuzen, lankidetzak gai globalei tokiko esperientziak eta agendak artikulatuz heltzen die), lehentasun hauek ditugu apustu horiek zehazteko:

- Lehentasun geografikoak: Lehentasun geografikorik ez egotearen alde egiten dugu. Horren ordez, arazo globalei aurre egin behar dieten testuinguruei eta lurraldeei buruzko begirada zabalari eustea aldarrikatzen dugu. Dena dela, Hegoalde Globalaren pisu espezifikoak jarraitzen du izaten euskal lankidetzako politiken eta ekimenen ardatz nagusia. Azken finean, administrazioei eskatzen zaie ez ezartzeko lehentasun geografikorik beren planetan eta eskakizunetan.

Salbuetsi egiten da Afrika; eta kontinente horrentzat bi egoera posible planteatzen dira, laguntza egonkorra ziurtatzeko:

- Kuota edo gutxienerako aurrekontu-erreserba;
- Afrikaren berezitasunak kontuan hartzen dituen berariazko deialdia.

Bi kasuetan, kontinente honetako ekimenen alde egiteko neurri zehatzak hartuko dira.

- Arloen araberrako lehentasunak: Aurreko logikan, giza garapen iraunkorrari esanahi orokorra ematen zaio; horregatik, ez dira *a priori* arloen araberrako lehentasunak ezartzen. Helburua ez da baztertzaila, baizik eta inklusiboa; izan ere, giza garapen iraunkorraren arlotzat har daitezkeen guztiak hartzen dira kontuan (ekonomikoa, politikoa, kulturala, soziala, ingurumenari buruzkoa eta generoari buruzkoa).

Emakumeen ahalduntzea da salbuespena, banatzeko dauden funtsen %20 horretarako erreserbatzea proposatzen baita, bai eta kontzeptu horrek zer esan nahi duen argitzeko irizpide garbiak ezartzea ere.

- Zeharkako lehentasunak: Gure ikuspegiaren arabera, giza garapen iraunkorrari izaera ematen dioten lerroak hauek dira:
 - Tokiko gaitasunak, parte-hartzea eta antolaketa
 - Genero-berdintasuna
 - Giza eskubideak
 - Jasangarritasun ekologikoa

Halaber, proposatzen dugu lankidetzak-ekimenetako global-tokiko ikuspegiaren aldeko apustua arian-arian sartzen joatea zeharkako lerroetan edo ikuspegiaren, euskal lankidetzan apustu horri eman nahi diogun garrantziarekin bat etortzeko.

Lankidetzaz-eragileak

Ipar-Hego ikuspegitik global-tokiko ikuspegira igarotzea beharrezkoa iruditzen zaigunez, uste dugu garrantzitsua dela lankidetzaz-tresnak Hegoaldekoak ez diren aktoreei ere irekitzea. Euskal lankidetzazaren lehentasunezko helburua pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da. Horretarako, talde zaurgarrienak kontuan hartuko dira bereziki, eta lankidetzaz-bideak jorratuko dira beste eragile eraldatzaile batzuekin, giza garapen iraunkorrari laguntzen dioten baldintzak bultzatzeko.

GGKEei bermea ematen die euskal lankidetzaz deszentralizatuaren eragile gisa duten ibilbideak, eta lankidetzaz horren protagonista nagusiak izaten jarraitu behar dute. Hala ere, testuinguru- eta paradigma-aldaketek iradokitzen digute aukera dagoela aurrera egiteko guk gauzatzen ditugun gizarte-eraldaketa prozesuen antzekoetan ari diren beste eragile batzuekin koordinatuta eta haiekin harremanetan.

Lankidetzazaren Euskal Legearen 9. artikulua araberaz, garapenerako lankidetzaz-eragileak hauek dira: euskal administrazio publikoak eta haiei lotutako bestelako entitateak; GGKEak; eta lege horren helburuen eta printzipioen babesean garapenerako lankidetzazko ekintzak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuk, hala nola unibertsitateak, sindikatuak eta bestelako gizarte-erakundeak. Artikulu berean zehazten denez, esku-hartzearen izaera teknikoak hala eskatzen duenean, lehen aipatutako eragileek beste izaera juridiko bateko entitateen parte-hartzea bilatu dezakete garapenerako lankidetzaz-proiektuetan.

Enpresa-ekimen pribatuaren garrantzia handitu egin da garapen-eragile gisa eta, nazioarteko lankidetzazaren esparruan, aukera gehiago ireki dira aliantza publiko-pribatu deiturikoentzat (APP) eta merkataritza-laguntzentzat. APP horiek ugaritu direnez, Euskadiko GGKEen Koordinakundea garen aldetik, adi egon behar dugu, eta merkataritza-harremanek eta atzerriko inbertsioek Hegoaldeko herrialdeen garapenean izandako eraginen jarraipena egin, lankidetzaz-sektorearen apustuarekin bat datorren garapen motarena, gutxienez. Irizpide batzuk ezarri behar direla uste dugu, gure lanak helburu duen paradigman zein APP sartzen diren eta zein ez bereizteko.

Gure eztabaidetan, euskal GGKEok gizarte-mugimenduekin aliantzak egiteko berariazko apustua egin dugu. Tentuz ibili gara APPen eta euskal lankidetzazko enpresen irismena balioztatzean, eta horrek ideia eta adostasun argi batzuk ateratzeko aukera eman digu etorkizunera begira. Euskadiko GGKEen Koordinakundeko GGKEok beste eragileekiko jarrera irekia dugu: bakoitzaren berezko ezaugarriak bereizten ditugu, eta erritmoetara eta bakoitzaren sinergia-bilaketetara moldatzen gara. Ezinbestekotzat jotzen dugu honako hauek definitzea: eragileekin izango dugun lankidetzazaren helburuak, enpresa-arloko gutxieneko eskakizunak, gizarte-mugimenduekin ditugun

helburu komunak eta/edo osagarriak eta unibertsitate-esparruko elkarrengandiko ikaskuntzak.

Etorkizunerako tresna-proposamena

Tresnen esparruari buruzko ikuspegi adostua jorratzean, trantsizio-logika batean oinarritu gara. Hau da, epe ertain eta luzeko bidea adieraziko digun etorkizuneko begirada batekin batera, begirada zehatzago eta epe motzeko baten alde egin dugu, gaur egungo tresna nagusiak aldatzen hasteko.

Atal honetan ibilbidearen etorkizunari begiratuko diogu. Zailtasunak eta zalantzak ez zaizkigu falta, baina gure abiapuntua proiektuak ardatz gisa dituen mugei buruzko zenbait kezka dira, bai eta konkurrentzia-sistemek ekartzen dituten muturreko lehia ere.

Hortik abiatuta, zenbait ideia-indar proposatzen ditugu eztabaidarako, betiere geure eginez dokumentuaren hasieran ezarri diren premisa batzuk, hala nola aurrekontu-egonkortasuna, konfiantza eta zama burokratiko arinagoa:

- Ekimenei eta proiektuei laguntzetik erakundeen (edo erakundeen aliantza baten) estrategiak laguntzera eta babestera igarotzea eta, alde horretatik, Ipar-Hego logika eta lankidetzaren eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren arteko bereizketa apurtzen duten helburu argiak txertatzea. Horrek ikuspegi integralagoa emango lioke lankidetzaren-ekintzari, eta begirada zabalagoa. Gainera, erakundea indartzen ere lagunduko lieke, neurri batean, parte hartzen duten eragileei.
- Estrategiei laguntzeko denbora-tarteak 4-5 urtekoa izan beharko luke; horrela, gauzatzeko edo egikaritzeko epea egonkorragoa litzateke.
- Deialdietako lehia mugatzen duten sistemak ezarri beharko lirateke –gutziz kendu gabe–, euskal lankidetzaren nolabaiteko egonkortasuna, bai eta aniztasuna ere, bermatzen duten formulen bidez.
- Gauzatzeko eta justifikatzeko sistemaren oinarrian eragile sozialen eta instituzionalen arteko konfiantzak egon behar luke, malgutasun-, elkarriketa- eta konpromiso-esparru batean.
- Erakunde publikoek, beren eskumenen esparruan, estrategia horiei laguntzeko konpromisoa hartu beharko lukete, garapenerako politiken arteko koherentzia-agendak garatuz estrategien gauzatzeko-esparruetan.

- Finantzatu behar diren estrategiak hautatzeko edo baremoak ezartzeko irizpide nagusiek bi elementurekin zuzen lotuta egon beharko lukete: alde batetik, erakundeak proposamena gauzatzeko duen gaitasuna; eta, bestetik, proposamenaren kalitatea. Horrenbestez, ez da erakunde handientzat soilik pentsatutako tresna bat. Edozein erakundek eskura dezake, betiere estrategia bat eta hari heltzeko gaitasuna baditu. Horren ondorioz, estrategien tamaina oso desberdina izan ahalko da.

Dena dela, aurrekontu-erreserba bat mantenduko litzateke, oraindik estrategiak finantzatzeko esparrua eskura ez duten entitateentzako lankidetzaproiektuak finantzatzen jarraitzeko. Hasiera batean, sistema batetik bestera igarotzeko balio lezake eta, ondoren, mantendu egingo litzateke, murriztagoa izanda ere, hasten ari diren erakundeentzat edo finantzatzeko estrategia bat berez ez dutenentzat.

Indarrean dauden tresnentzako proposamena

Dokumentu honetan dagoen tresnen proposamen alternatiborako bidean, gure iritzirako gaur egun dauden tresnak indartzeko eta hobetzeko balio dezaketen proposamen batzuk ere sartu ditugu dokumentuan bertan:

Lankidetzarako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako deialdiak

(H)abian estrategiaren filosofiarekin bat egiten dugu, gure *Urrats 1 gehiago* proposamenaren edukiarekin bat baitator, oro har.

Gainera, iruditzen zaigu beharrezkoa dela beste urrats bat egitea eta administrazio publikoek eta GGKEek elkarrekin hausnartzeko guneak sortzea, lankidetzatresnetan guri egokien iruditzen zaigun tokikoaren eta globalaren arteko lotura zehazteko modu onena ez ezik, lankidetzaherkuntza dikotomia apurtzearen aldeko apustua zehazteko modu onena ere bilatzeko (lankidetzahegoaldeko ekintzekin eta herzkuntza Iparraldekoekin lotzen den neurrian, behintzat).

lido horretatik aurrera egiteko tarteko bidetzat, proposamen hauek egiten ditugu:

- Gizarte Eraldaketarako Herzkuntzaren aldeko apustua arian-arian areagotzen joatea aurrekontuetan eta politiketan, batez ere esparru horri dagozkion berariazko deialdiak.
- Gizarte Eraldaketarako Herzkuntzako deialdietan, global-tokiko ikuspegia sartzeko aukera ematea, sartzan laguntzea eta sartu izanari balioespen positiboa

ematea; eta, horrela, Iparralde eta Hegoalde Globaleko beste testuinguru batzuetako logikak, eragileak eta jarduerak txertatzea.

- Lankidetzeta-deialdian, global-tokiko ikuspegia sartzeko aukera ematea, sartzan laguntzea eta sartu izanari balioespen positiboa ematea; eta, horrela, Iparralde Globaleko beste testuinguru batzuetako logikak, eragileak eta jarduerak zenbait agendatan txertatzea, hala nola sentsibilizazioko, eragin politikoko, hezkuntzako, sare-eraketako eta komunikaziokoetan.

Berriro ere zama burokratiko, elkarrenganako konfiantzan oinarrituta, arintzeari buruz hasieran egindako proposamenak gogoratu nahi ditugu.

Noizbehinkako ekimenak

Tresnaren erreforma iradokitzen dugu, baina haren izaeraren bi ordezeko proposatu ere bai:

- **I. proposamena:** Euskal lankidetzako ohiko eragileentzako tresnatzat hartzea, baina proposamenaren ezaugarriak direla-eta gainerako deialdian sartzeko zailtasunak dituzten jarduerak eta/edo proiektuak gauzatzeko.
- **II. proposamena:** GGKEek zenbait gizarte-erakunderekin aliantzak egiteko asmoa dutenean, erakunde horiei sarrera emateko tresnatzat hartzea, haien izaera eta ezaugarriak direla-eta beste deialdian sarbiderik ez badute. Beraz, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako eta lankidetzako deialdian zuzenean parte hartzen ez duten erakundeak liriateke, eta asmoa honako hau litzateke: haiei noizbehinkako ekimenetan laguntzea, begirada eta agenda internazionalista indartu dezaten.

Zuzeneko lankidetzeta

Zuzeneko lankidetzari dagokionez, adierazten da GGKEek betetzen dituzten irizpide berberak bete beharko lituzketela (zeharkakoak, jarraipenari buruzkoak...). Beste erakunde batzuekin aldiari behingo komunikazio-bideak ezartzea proposatzen da, eta erakunde horiek ere GGKEei eskatzen zaiena bete behar izatea proposamenak gauzatu behar dituztenean.

Gainera, zuzeneko lankidetzara bideratutako funtsetan legeak Eusko Jaurlaritzari % 10eko muga ezartzen dionez, muga hori administrazio publiko guztiei aplikatu ahal izatea proposatzen dugu.